

# Ezpalak

JON TORNER

## Pepe Rei kazetariak webgunea sortu du: [www.peperei.com](http://www.peperei.com)



URTE ASKOAN kazetaritza lana alboraturik eduki ondoren Pepe Reik webgunea sortu du: [www.peperei.com](http://www.peperei.com). Kazetari beteranoak azaldu duenez, jendearekin harremana berritzeko asmoz sortu du webgunea. *La Voz de Euskadi*, *Egin* eta *Ardi Beltzak*o kazetari

eta zuzendari izandakoak auto istripu larria izan zuen 2002an eta geroztik kazetaritza lana utzita zuen.

## Gipuzkoako historia ipuinen bidez

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK hamar ipuin eta bi DVD kaleratu ditu, 6 urtetik gorako haurrei Gipuzkoako iragana azaltzeko: *Gipuzkoako historia ipuinen bidez* (Elkar). Ipuinen egileak dira: Mitxel Murua, Pako Aristi, Jose Luis Olaizola Txiliku, Xabier Mendiguren Elizegi eta Manuel Arregi. Irudiak berriz, Juan Carlos Nazabal eta Jose Anjel Lopetegirenak dira. Ipuin bakoitza Gipuzkoako herri batean kokatzen da eta garai konkretu bateko istorioak ditu ardatz: Historiaurrea, Erdi Aroa, 1936ko Gerra... Horrez gain, DVDak ere jarri dituzte salgai ipuinetako marrazki bizidunekin eta jolasekin.



**Joxe Ramon Bengoetxea** (Irun, 1963) Europako gaietan adituak eraman du Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutzaren Humanitate, Kultura, Arte eta Gizarte Zientzien saria. Euskal Herriko unibertsitateetako errektoreek, Eusko Ikaskuntzako presidentek eta Euskadiko Kutzako zuzendariak osatzen dute epaimahaia eta saria emateko arrazoiaren artean Bengoetxearen lanaren osotasuna eta Euskal Herriko kulturaren garapenari eskainitako laguntza azpimarratu dute.

**Imanol Rayo** zuzendari arbizuarrak zinemara eramango du Bernardo Atxagaren *Bi anai* (Erein, 1985) eleberria. Hilaren 21ean ekingo dio filma grabatzeari, Lesakan, Iturenen eta Artikutzan. Filmaren amaiera neguan grabatu zuen Rayok, Belagoako paisaia elurtuetan. Egitasmoak 1,5 milioi euroko aurrekontua du.

**Donostia Hiria** literatur sarien lan irabazleak Kutxa Fundazioak argitaratu izan ditu orain arte. Aurten, baina, Alberdaniak hartu du horren ardura. Xabier Artolaren *Deception Island* ipuina eta Mattin Irigoienek *Jendeen jende* antzerki lana dira argitaratu dituen aurrenekoak.

**Maddi Oihenart** abeslariak eta Juantxo Zeberio pianistak hainbat idazleren poemak kantu bihurtu dituzte *Baldi* diskoan (No-CD Records). Txema Garces kontrabaxua eta Pello Ramirez txelo eta soinu-jolea izan dituzte alboan. Bestalde, Iñaki Salvador pianista donostiarrak *Lilurarik ez*, *Mikel Laboarekin solasean* diskoa plazaratu du, Hasier Oleaga batera-jolearekin eta Javier Mayor de la Iglesia kontrabaxuarekin.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)



ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO TEKNIKAK  
TÉCNICAS DE RESTAURACIÓN DE EDIFICIOS

Olmos pasealekua 14, 5. solairua 20016 DONOSTIA  
Tel: 943 401340 · Fax: 943 401511  
[teusa@teusa.com](mailto:teusa@teusa.com) · [www.teusa.com](http://www.teusa.com)

